



Usurbilgo Udala

## **PERTSONAL ETA ANTOLAKUNTZA TEKNIKARIA**

### **Izen-ematea:**

Lanbiden argitaratutako iragarkiaren bitartez egin beharko da izen-ematea.

Lan-esperientzia eta formazioa egiaztatzeko ziurtagiriak Udaleko posta elektronikoa honetara bidali behar dira: [idezkaritza@usurbil.eus](mailto:idezkaritza@usurbil.eus)

Izen-emateko eta aipatutako agiriak bidaltzeko azken eguna: 2025/04/16.

### **Baldintzak:**

- a) Espainiar nazionalitatea edo Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren baten nazionalitatea izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea. Parte hartu ahal izango du, era berean, Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak ere, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat urte baino gutxiagokoak badira, eta adin horretatik gorakoak, baina bere pentzutan bizi direnak.
- b) Gutxienez hamasei urte izatea eta gehienez ere nahitaezko erretiroaren adina.
- c) Titulazioa: Zuzenbide, Politika Zientzia eta/edo Soziologia gradua edo baliokidea den titularen jabe izatea, edo hori lortzeko eskubideak ordainduta izatea.
- d) Euskararen ezagutza: 4. HE (lehenetsi egingo da baina hautagairik ez badago, 3. hizkuntza eskakizuna onartuko da).
- e) Dagozkion egitekoak normal egiteko gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea.
- f) Diziplina espediente bidez edozein Herri Administrazio edo Autonomia Erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako ez gaikuntza erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan legepekoen kasuan, bereiziak edo ezgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.
- g) Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera, ezintasun edo bateraezintasun lege kausaren batean sartuta ez egotea.

### **Hautaketa honako merituen arabera egingo da:**

- Lan-esperientzia:

- Lan esperientzia giza baliabidetan, administrazio publikoan, karrerako funtzionario edo bitarteko funtzionario gisa edo lan kontratuko langile gisa, administrazio orokorreko goi mailako teknikarien lanpostuetan (A1 taldea), baloratuko da 0,5 puntu hileko, eta gehienez ere 12 puntu arte.



Usurbilgo Udala

- Lan esperientzia antolaketa zereginetan, administrazio publikoan, karrerako funtzionario edo bitarteko funtzionario gisa edo lan kontratuko langile gisa, administrazio orokorreko goi mailako teknikarien lanpostuetan (A1 taldea), baloratuko da 0,3 puntu hileko, eta gehienez ere 6 puntu arte.
- Lan esperientzia giza baliabidetan, arlo pribatuan, goi mailako teknikarien lanpostuetan (A1 taldea), baloratuko da 0,1 puntu hileko, eta gehienez ere 5 puntu arte.

- Formakuntza:

- Enpresa zuzendaritza eta giza baliabideetako Unibertsitate Masterrak 5 puntu.
- Postuarekin zerikusia duten ikastaroak (0,05 p orduko) gehienez ere 3 puntu.

### **Elkarrizketa:**

Merituen balorazioan puntuazio altuena lortu duten lehen 10 hautagaiari 15-20 minutuko elkarrizketa bat egitea, hautagaien gaitasunak eta hautagaien plazari dagokionez duten egokitasun maila neurtzeko, gehienez ere 9 punturekin.

**Hilabeteko praktikaldia.** Hautaketa prozesua osatzen duen beste fase bat izango da. Aldi horretan gai edo ez gai kalifikazioa lortuko da. Praktikaldia amaitzean, udal idazkariak txostena egingo du, praktikaldia honako irizpide hauen arabera ebaluatzeko:

- Ondorengo alorretan erakutsitako gaitasunak:
  - Lanerako gaitasuna eta laneko errendimendua.
  - Erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua.
  - Ikasteko interesa, prestasuna eta ekimena.
- Frogatutako gaitasuna, honako hauei dagokienez:
  - Lantaldean integratzea.
  - Barruko eta kanpoko harremanak egokitzea.

Hautagaiak praktikaldia egiten ez badu, edota gainditzeko eskatzen den gutxieneko gaitasuna egiaztatzen ez badu, praktiketako bitarteko funtzionario izateari utziko dio eta bitarteko funtzionario izendatzeko izan ditzakeen eskubideak galduko ditu. Praktikaldia gainditzen ez bada, ebazpen arrazoitu bat eman beharko da, hautagaiari entzun ondoren.